

## BILBOKO 8 ZKI.KO EPAITEGIAN IZANDAKO DERRIGORREZKO LEKUALDATZEAK

### *ADMINISTRAZIOAREN IZUGARRIKERIARI SINDIKATUEK EZ DIOTE EMAN BEHAR BEZALAKO ERANTZUN IRMORIK*

Urtarrilaren 28an Justizia Sailak emandako kolpe latza jaso genuen, prebentzio delegatuoi egindako jakinarazpen baten bitartez: 5 langile (oraingo) Instrukzio 8an daukaten plazatik kendu eta beste destino batzuetara bidaltzen dituzte derrigortuta. **Neurri horrek ez du oinarri disziplinazko zigor batean; administrazioak argudiatzen du “horko langileen osasuna dela-eta mugikortasuna”.** Haien osasuna babezte aldera baja ekarri zioten nahigabea eman zien, alegia.

Epaitegi horretan aspalditik datorren arazoari soluzioa helburu omen, sailak egindako ekintzak penagarriak izan dira hasiera-hasieratik. Neurriren bat ezarri duen guztietan, hobera egin beharrean sutara gasolina botatzearen parekoa izan da. **Izan ere, sailak esku hartu aurretik ez zegoen inor gaixotasun bajan, tentsio-giroa gora behera; geroago, ordea, luzaroko baja agindu behar izan die medikuak batzuei.**

Delako epaitegi horretan, antzinako kontua da langileen arteko liskarrak, **urteetan gordinduak. Eta idazkari ezberdinen jokabideak larriagotu egin ditu,** ez dutelako ezer egin haien ekiditeko. Zuzendariak berak onartzen du giro gaiztoak ez duela kaltetu bulegoaren funtzionamendua eta espedienteak eguneratuta daudela. Hala eta guztiz ere, erabaki salomonikoa, aurrekaririk ez duena, hartu du. **Ematen du ohartaratu nahi gaituela eta zentzabidea ezarri.**

Lehendabiziko jokaldia izugarria izan zen: lehendabizi abiatu zuten *laneko jazarpena eta pertsonen arteko gatazkak sahiesteko protokoloa*; horren araberrako ikerketaren barruan, bulegoko langile guztiak elkarrizketatu zituzten; geroago espedientea ireki zioten bi behargini grabazio oso guztiak eman zizkieten. Elkarrizketatzean administrazioek esan zieten lasai eta bihotzez hitz egiteko, esandakoa sekretupeko baitzen. Ulergarria denez, are urteetan zehar pilatutako tentsioarekin, zenbait langilek barruak husteko bidetzat hartu zuten ekarrizketa: denetatik eta denentzako bota ziren. Sailak dio hitzez hitz ezarri zuela protokoloa eta ez du onartzen asmo txarrez jokatu izana. Horrez gain, zuzendariak Izaskun Reyes letraduaren jokamoldea -hark eman zizkien grabazioak espedienteatuei- babesten du. Soluzioak diozu? Tori soluzioa!

Protokolo barruko ikerketan erabaki zuten ez zela jazarpen kasua, pertsonen arteko harreman bihurriak baizik. Hori dela eta, psikologo bat kontratatu zuen administrazioak diagnostikoa egin eta neurri zuzentzaileak proposa zitzaizkien. Profesional horren ustez: ezin da bitartekaritza egin kasu honetan; ez dago errudun argirik; langile guztiek -batzuek gehiago bestetzuek gutxiago- faboratu dute gauzak hain urrun joan izana; psikologoak onartzen du idazkariak ez duela bete dagokion zeregina, hau da, bulego judizialeko buruari dagokiona; ate ondoko lanpostuak lan-arrisku lanpostua dela onartu bai, baina ez omen dagoenez horiek konpontzea, arrisku horiek gutxiagotzearekin konformatu behar dela.

Horren guztiaren jakitun gara psikoloak berak Lan Osasuneko bilera batean egindako azalpenengatik, ez baitigute eman txostenaren kopiarik ezta berorren laburpenik ere. LABen pentsatzen dugu errealitatearekin bat ez datorrela delako txosten horretan egiten den diagnosis. **Administrazioak ez du behar bezainbeste sakondu arazoan eta adabakiak jartzen aritu da, ez besterik.**

Aurrekoaren guztiaren ondorioz, 10etatik 7 pertsona behartzen dituzte lekuz aldatzera “norberaren osasunagatik”. Sekula ere ez ikusia: horrelako zigor larria aplikatzea, alde aurretik disziplinazko espedienterik ireki gabe.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak maltzurkeriaz jokatu du: azaroaren 5ean soluziorako ahalezko proposamen gisa aurkeztu zigun aurretik hartutako erabaki bat. Munta horretako neurria hartzeko, baina, ez zuen ezagutu behar delegatuon iritzia; hala ere, gu nahasi nahi gintuen haren izugarrikeria zuritzeko. Sailaren jokabidea zintzoa ez dela frogatzen duen beste lagin bat: arrisku psikosozialen ebaluazioaren inguruko inkestak euren eskuetan eduki arte ez dituzte notifikatu derrigorrezko lekualdatzeak; bestela kolaboratzeari ezetz esango zioten langile guztiak, prebentzioko ordezkariak barne.

Ebaluazioarekin hasi baino lehen zalantzak bagenituen administrazioak ahal zuen guztia egingo ote zuen sinesteko, **orain ez daukate sinesgarritasun izpirik.**

Ezin dugu utzi Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren nahia auzitegietara heltzen, magistratuen esku geratuko litzatekeelako lekualdatzeak zuzenak diren ala ez erabakitzea. **Hori oso bide arriskutsua da. Horrek ekar lezake osasunagatiko derrigorrezko lekualdatze figura berri horri atea betiko irekitzea; eta administrazioak, intereseren bat duen egoeretan, zigor hori ezarri ahal izatea, erantzuteko aukerarik eman gabe eta berme juridikorik gabe.**

Goian azal dutakoa oinarri, otsailaren 4an Lakuara joan ginen Justizia Sailburuorde Ana Agirrerekin hitz egitera. Justizia Administrazioako Zuzendari Jon Uriarterekin batera hartu gintuen. Gure protestak eta eskaera (lekuz aldatzera derrigortutako langileak aurreko destinora itzultzea) entzun ostean, saileko buruak esan zuen kontua aztertuko zuela eta gorako errekursoari emandako ebazpenaren bitartez etorriko zela erantzuna, beste konpromisorik hartu nahi izan gabe.

Derrigorrezko destino berria jakinarazi zutenetik sindikatuok ez gara ados jarri gatazka honi zer soluzio ematean. Egun 7 pertsona jakin kaltetzen dituen ebazpena izanik ere, aurrerantzean justiziako langile guztioi ezarri dakigukeen figura daukagu hau. Hori dela-eta, **hasieratik LABek defendatu ditu ekintza sindikala eta mobilizazioak, bide juridikora jo baino lehen. Beste sindikatu batzuek, berriz, bigarren hori lehenetsi dute. Nora eraman gaitu horrek guztiak? Bada, egunak joan egunak etorri erantzun indartsurik ez ematera.**

Bestalde, saiatu gara prebentzioko delegatuekin idazki bat adosten baina ezinezkoa izan da. Kontua da sailburuordearekin egin genuen bileran ez zutela jaso aktarik, hortaz, han esandako guztiak ofizial egiteko asmoz beharrezkoa ikusten dugu idatziz jarri eta erregistratzea.

**Ohar honen bidez, LABek argi nahi du utzi bere posizioa gatazka honetan. Eta ekingo diogu beste sindikatuak ahalik eta lasterren mugiarazteari.**